

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 336/2020 Erabakia, uztailaren 21ekoa. Onestea COVID-19ak Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletan eta udaletan 2020ko ekitaldian sortutako turismo jardueren gastuei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdia

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9koa/10/2016 Foru Dekretuak 8. artikuluan xedatzen du Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailari dagokiola lanbide kualifikazioa eta enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza ekintzak sustatzeko ekintzen eta ekimenen garapena proposatzea eta gainbegiratzea, bai eta lanbide heziketako zentroak eta Arabako beste erakunde batzuk hobetzea, autonomoei laguntzea, txikizkako merkataritza garatzea eta laguntzea, eta turismoa eta artisau jarduera sustatzea ere.

Azken urteotan, bisitarien kopurua eta turismoaren garrantzia nabarmen hazi da lurralde historikoan. Sektore horren alde egindako lanari esker, Araba helmuga turistiko ia ezezaguna izatetik gero eta jende gehiago erakartzen duen helmuga izatera pasa da. Arabako Foru Aldundiak jarduera horren alde egiten du argi eta garbi, lurraldearen garapen ekonomikoa ahalbidetzeko aukera gisa, enpresentzat eta herritarrentzat onura ekarriko duelakoan. Turismoaren sektorea oso azkar ari da garatzen, eta, horregatik, kontsumitzaileak erakartzeko estrategia indartzen ari da Gasteiz-Araba, lurraldean turismoaren garapen jasagarria sustatzen eta konplexua eta zeharkakoa den sektorearen buru izaten.

Urtea hasi zenetik, 2020rako erronka handienetako bat bisitariak erakartzea da, bai eta eskaria sasoi jakin batean ez pilatzea lortzea ere, eta, horretarako, bisitarien beharretara egokitutako eskaintza egin behar da lurralde osoan. Beste lehentasunetako bat sektoreko pertsonak profesionalizatzea da.

Turismoaren arloko bere eskumenak erabiliz, zuzendaritza honek Arabako turismo sektorea bultzatu, sustatu eta babesteko esparru egokia garatzen jardun du azken urteotan, eta, horretarako, dirulaguntzak emateko urteko deialdiak onartu ditu.

Osasunaren Mundu Erakundeak COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi egoera nazioarteko pandemiatzat jo zuen 2020ko martxoaren 11n. Gaixotasuna estatuan eta nazioartean horren azkar hedatzearen ondorioz, berehalako neurri eraginkorrak hartu behar izan ziren egoerari aurre egiteko.

Pandemia hori kalte handiak eragiten ari da Arabako Lurralde Historiko osoan, baita estatuko gainerako lurraldeetan ere; besteak beste, Arabako enpresa sarearen jarduera ekonomikoa nabarmen eta nahi gabe murriztea eragin du, eta ondorioz, enpresa askok beren jarduna gelditu egin behar izan dute.

Horiek horrela, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak toki erakundeetako turismoaren alorrean laguntzeko tresna bat aktibatu nahi du.

Arabako Lurralde Historikoan, herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko eta pandemia geldiarazteko neurriak hartu dira, bai eta larrialdi egoera hori gizartean eta ekonomian eragiten ari den kalteak arintzeko aldi baterako neurri bereziak ere.

Ekonomiaren arloan, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren lehentasun erabatekoa da euskal turismo-sektorea babestea eta laguntzea, kaltea minimizatzeke

eta, osasun alarma amaitutakoan, Arabako turismo sektorearen jarduera ahalik eta lasterren suspertzea lortzeko.

Horrela, COVID-19ak sortutako jarduera gastuei aurre egiteko, Arabako turismo sektoreko irabazteko asmorik gabeko erakundeentzako deialdi honek hainbat erakundek hartutako neurri ekonomikoen multzoa osatzen du, eta, beraz, horiekin guztiekin bateragarria da.

Horregatik guztiagatik, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emateko eta publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren, eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek eta udalek turismoa sustatzeko 2020 ekitaldian gauzatzen dituzten ekimenak arautuko dituen laguntza deialdia ezartzen da.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea COVID-19ak Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletan eta udaletan 2020ko ekitaldian sortutako jarduera gastuei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdi publikoa.

Bigarrena. Deialdia honako hauek arautzen dute: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko aplikatzen diren oinarri orokor arautzaileek (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua) eta foru dekretu honen eranskinean xedatzen denak.

Hirugarrena. Erabaki honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2020ko gastuen aurrekontuko zenbait partidaren kontura ordainduko dira. Hona hemen zeintzuk diren aurrekontu partidak eta banaketa:

– Partida: 1.30.5.02.37.00.465.00.02; zenbatekoa: 285.000,00 euro; xedapen erreferentzia: 105.2553/000; onuradunak: kuadrillak.

– Partida: 1.30.5.02.37.00.462.90.02; zenbatekoa: 70.000,00 euro; xedapen erreferentzia: 105.2552/000; onuraduna: udalak.

Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsua jar daiteke diputatu nagusiaren aurrean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen, administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA**COVID-19AK ARABAKO TOKI ERAKUNDEETAN 2020KO EKITALDIAN SORTUTAKO
TURISMO JARDUERA GASTUEI AURRE EGITEKO EZOHIKO LAGUNTZEN DEIALDIA****1. artikulua. Xedea**

Deialdi honen xedea da Arabako kuadrillei eta udalei laguntzea COVID-19ak 2020ko ekitaldian sortutako jarduera gastuak edo gastu korranteak estaltzen.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehienezko zenbatekoa

2.1. Ebazpen honen bidez araututako dirulaguntzak aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

– Partida: 1.30.5.02.37.00.465.00.02; zenbatekoa: 285.000,00 euro; xedapen erreferentzia: 105.2553/000; onuradunak: kuadrillak.

– Partida: 1.30.5.02.37.00.462.90.02; zenbatekoa: 70.000,00 euro; xedapen erreferentzia: 105.2552/000; onuraduna: udalak.

2.2. Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri orokorren 7.2 artikulua betetzeko, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak ebazpen bidez birbanatzeko, Balorazio Batzordearen proposamena aintzat hartu ondoren eta deialdiaren guztirako aurrekontua ezinbestean errespetatuta.

2.3. Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partiden hasierako hornidura hasierako aurrekontuaren ehuneko 100 handitu ahalko da, gehienez, aurrekontu transferentzia egokien bitartez, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

3. artikulua. Onuradunak

3.1. Laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak eskura ditzakete:

a) Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek.

b) Arabako Lurralde Historikoko udalak, baldin eta turismo bulegoa edo turismoko informaziorako puntua badute, eta gutxienez bost urteetatik lau zerbitzuak ematen ari bada.

3.2. Beren-beregi baztertuko dira Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako aurrekontuan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren dirulaguntza izenduen bat jaso duten eskatzaileak (esleitzeko garaian hitzarmena izenpetuta egon edo ez), baita laguntza lerro honetako lehenagoko deialdien bidez emandako dirulaguntzak ezarritako epean egin edo justifikatu ez dituztenak ere, salbu eta baldintza hori ez betetzeko arrazoiak nahikoa justifikatuta badaude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz.

3.3. Ezin izango dira onuradun izan onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan sexua-
ren ziozko bereizkeria egiten duten erakundeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

4.1. Diruz lagundu ahalko dira proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak, hala nola:

– A) COVID-19 koronabirusak eragindako osasun krisiaren ondorioz, turismoa sustatzeko eta hedatzeko estrategia berriz diseinatzeko beharrezkoak diren gastuak.

– B) Zerbitzu turistikoak (bisita gidatuak, bizikleten alokairua) kontratatuzko on-line merkaturatze sistemak hobetzeko edo abian jartzeko gastuak.

– C) Online publizitateari dagozkion gastuak (Google adwords, sare sozialetako publizitatea, beste webgune batzuetako publizitate gastuak, merkatu segmentu espezifiko edo espezializatuari zuzendutakoak izan ezik) eta, oro har, Interneteko posizionamenduari edo presentzia handitzeari dagozkion gastuak.

– D) Turismoa sustatzeko materialak diseinatzeko, egiteko, maketatzeko, itzultzeko eta inprimatzeko gastuak.

– E) Ekitaldi turistikoa bakarrik sortu, hobetu, antolatu, sustatu eta merkaturatzeko gastuak, hau da, aurrez antolatutako gertaera, arrazoi pertsonal edo profesionalak direla eta ohiko bizilekutik kanpo dauden pertsonak mobilizatzeko gaitasuna duena.

– F) Bisita gidatuen gastuak.

– G) Turismo bulegoak nahiz turismo informazio eta interpretazio zentroak kudeatzeko gastuak.

– H) Kanpo aholkularitza gastuak, Euskadiko Kode Etikoa turismo alorrean ezartzeko.

– I) Erabilerarako ingurumen planak eta/edo kudeaketa eredu adimendunak eta/edo jasagarriak.

– J) Nazioarteko Turismo Azokara (FITUR) joateko gastuak, soilik kuadrillenak. Diruz lagunduko dira tren edo autobus joan-etorriko txartel bi edo, auto bakar batean joanez gero, 0,29 euro kilometroko; baita bi pertsonaren ostatu gastuak ere, baina dirulaguntzaren zenbatekoa, kasu horretan, ez da izango 100,00 euro baino gehiago pertsonako eta gauko.

– K) Turismoko web orriak diseinatzea, eguneratzea eta itzultzea. Ez da dirulaguntzarik emango web orri horien erregistro eta hosting gastuetarako eta gainerako mantentze gastuetarako.

– L) EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruz ezarritako betebeharrak betetzeko onuradunek egin behar dituzten gastu guztiak, deialdi honetako 11.2 artikuluan jasotakoaren arabera.

4.2 Diruz lagundu daitezkeen gastu horietarako, gehienez ere, zenbateko hauek emango dira:

– Turismoa sustatzeko eta material orokorra argitaratzea eta inprimatzea eta online publizitatea: 2.000,00 € euro, oro har, eta 4.000,00 euro zuzenbidezko 20.000 biztanle baino gehiago dituzten kuadrilla eta udal onuradunentzat.

– Turismoko web orriak diseinatzeko, eguneratzeko eta itzultzeko gastuak: 2.000,00 euro, oro har, eta 4.000,00 euro zuzenbidezko 20.000 biztanle baino gehiago dituzten kuadrilla eta udal onuradunentzat.

– Turismo bulegoak nahiz informazio eta interpretazio guneak kudeatzeko gastuak: 20.000,00 euro zuzenbidezko 20.000 biztanle baino gehiago dituzten kuadrilla y udal onuradunentzat eta 6.000,00 euro gainerakoentzat.

– Bisita gidatuak: 8.000,00 euro zuzenbidezko 20.000 biztanle baino gehiago dituzten kuadrilla y udal onuradunentzat eta y 2.500,00 euro gainerakoentzat.

– Turismo ekitaldi bat sortzea, hobetzea, antolatzea, sustatzea eta merkaturatzea: 8.000,00 euro, oro har, eta 20.000,00euro kuadrillentzat.

– Kanpo aholkularitza gastuak, Euskadiko Kode Etikoa ezartzeko: 4.000,00 euro.

– COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun krisiaren ondoriozko gastuak (A eta B apartatuak): 6.000,00euro, oro har, eta 20.000,00 euro kuadrillentzat.

4.3. Gastu hauengatik ez da dirulaguntzarik emango:

– Sustapenerako materialaren inprimaketa gastuak.

- Material ez suntsikorraren gastuak eta inbertsio gastuak, materiala nahiz immateriala izan.
- Material inbentariagarria hornitu, jarri, garraiatu eta abarren gastuak.
- Prestakuntzarekin zerikusia duten gastuak, edozein eratakoak.
- Ibilgailuetan eta establezimenduetan errotuluak jartzeko gastuak.
- Funtzionamenduko gastu arruntak, hala nola alokairuak, argia, telefonoa, aldizkarietarako harpidetzak, aseguruak eta bulegoko materiala.
- Erakunde eskatzailearen barruko langile gastuak.
- Higiezinaren alokairu gastuak.
- Interneten sartzeko kuotak eta elkarteei ordaindutako kuotak, aldizkako informazio buletinenak eta aldian aldiko gainerako gastuak.
- Dirulaguntzaren xede diren lehiaketetako sariak.
- Merchandising materialak (sustapenerako materialak) erostea eta banatzea.
- Kalitate ziurtagirien gastuak eta ziurtagiria eman duen erakundeak fakturatutako ikuskaritza gastuak. Lehendik eskuratutako kalitate ziurtagiriei eusteko gastuak.
- Sustapen ekitaldien gastuak (lunch, bazkari, jai eta abarrekoak).
- Xede nagusizat kirola eta/edo kultura sustatzea daukaten ekitaldiak.
- Esponsorizazio gastuak.
- Telefono terminalak eskuratzea, nahiz eta haien artean aplikazio informatikoak egon.

4.4. Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta onuradunak ordaindu egiten baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inolaz ere ez dira diruz lagunduko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

4.5. Eskatzailearen eta hornitzailearen arteko lotura dagoenean, gasturako dirulaguntza emango da baldin eta hiru eskaintza eskatzen badira zerbitzua edo inbertsioa egiteko, eta, eskaintzarik merkeena hautatu ezean, horren arrazoiak justifikatzen badira.

4.6. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea baimentzen da, betiere Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 27. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

4.7. Proiektu beraren barruan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz turismoa sustatzen nahikorik laguntzen ez duten jarduketak badaude, baztertu egin daitezke esleitu beharreko dirulaguntzaren kalkuluaren ondorioetarako.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epealdia

- 2020. urtean hasitako jardueretatik, 2020ko abenduaren 18ra arte gauzatzen direnak, egun hori barne.
- 2019ko azken hiruhilekoan hasitako jardueretatik, 2020ko abenduaren 18ra arte gauzatzen direnak, egun hori barne, baldin eta ez badira diruz lagundu aurreko deialdietan.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Erabaki honetan jasotzen diren laguntzak diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 80eraino iritsiko dira (ikusi Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua, 7.3. oinarri orokorra).

6.2. Hala ere, deialdia ebatzitakoan, ez bada 2.1 artikuluan jasotako aurrekontu kreditua agortu, sortutako gerakina erabili ahalko da, hainbanaketaz ehuneko 90eraino gehitzeko onuradun bakoitzaren dirulaguntza ehunekoa.

6.3. Nolanahi ere, toki erakundeentzako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa (aurreko apartatuetako ehunekoak aplikatuz ateratakoa) 52.000,00 eurokoa izango da kuadrillentzat, 32.000,00 eurokoa 20.000 biztanletik gorako zuzenbidezko biztanleria duten udal onuradunentzat, eta 9.000,00 eurokoa gainerako udalentsat.

6.4. Laguntza eskatzen duen erakundea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuetan laguntza baten onuraduna izan bada programa honen kontura onartutako proiektuen antzeko beste batzuetarako, diruz lagundu daitezkeen oinarria egokitu egingo da, arautegi honetan ezarritako gehieneko dirulaguntza ez gainditzeko.

6.5. Eskabide bat diruz lagundu ahal izateko, ezartzen da esleipenaren unean proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa 1.000,00 eurokoa izan behar dela, oro har, eta 1.500,00 eurokoa 20.000 biztanletik gorako zuzenbidezko biztanleria duten kuadrilla eta udal onuradunen kasuan.

7. artikulua. Emateko irizpideak

Norgehiagoka bidez emango dira, eta lehenetsun hurrenkera hau izango da:

1. Lehenik eta behin, honako gastu hauek hartuko dira kontuan: ekitaldi turistiko batek eragindakoak, bisita gidatuak egiteak eragindakoak, turismo bulegoak edo informazio guneak kudeatzeak eragindakoak, eta Euskadiko Kode Etikoa ezartzeko kanpo aholkularitzakoak (diruz lagun daitezkeen gastuen ataleko e E, F, G eta H letrak). "Laguntzen zenbatekoa eta muga" atalean ezarritako dirulaguntzaren ehunekoak aplikatuko da, hautaketa eta balorazio irizpideen arabera.

2. Bigarrenik, gainerako aurrekontu kredituarekin, diruz lagun daitezkeen gainerako gastuei erantzun zuzena, eta hainbanaketa aplikatuko zuzen baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei, gastu horiei dagozkien diruz lagun daitezkeen oinarriak kontuan hartuta, baina ezingo dituzte, inolaz ere gainditu "Laguntzen zenbatekoa eta muga" atalean ezarritako zenbatekoa eta mugak.

8. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak

8.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balorazio batzordea honela egongo da osatuta:

Batzordeburua: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Batzordekidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

9. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epea eta modua

9.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan dagoen erregistro elektronikokoan, betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

AFaren egoitza elektronikokoan zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri elektronikoko baten edo BAKQ sistemaren bidez: <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza-nola-sartu>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikokoan: <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

9.2. Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdi hau indarrean sartzen denean, eta 2020ko irailaren 4an amaituko da, 14:00etan.

9.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoa zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

– a) Dirulaguntzaren xede diren jardueren memoria (jardueren beharra eta eskatzailearen lehiakortasun hobekuntzari dagokionez izan ditzaketan ondorioak).

– b) Lana egingo duen edo egin duen kanpoko profesionalaren edo hornitzailearen eskaintzaren fotokopia (proformako edo behin betiko fakturak, kanpoko aurrekontua edo, halakorik balego, kontratu sinatua).

– c) Eskatutako 3 eskaintzen fotokopiak, aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresei 15.000,00 euroko edo gehiagoko zerbitzuak eskatu bazaizkie. Horrekin batera, hautatu den eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, zergatik aukeratu den azaltzen duen justifikazioa. Proiektua gauzatu hasitakoan, diruz lagundutako ekintzaren baten benetako gastuak 15.000 euroko muga gainditzen badu, nahiz eta gastua onartu zenean zenbatekoa txikiagoa izan, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira.

– d) Aurreikusitako gastuen aurrekontu xehatuta.

– e) Eskatzailea udala denean, eskaerarekin batera behar bezala zigitatutako eta sinatutako udal ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horrek egiaztatu beharko du udalak turismo bulegoa edo turismo informazioko gunea duela eta dagozkion zerbitzuak eman dituela azken bost urteetatik gutxienez lautan.

9.4. Erakunde eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzako laguntza eskabidearen eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako jakinarazpen guztiak.

10. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioesteko irizpideak

10.1. Aurkeztutako jarduerak, oro har, ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera balioetsiko dira:

a) Proiektuaren berrikuntza maila, oro har, eta zein neurritan laguntzen duen turismo eskaintza dibertsifikatzen (25 puntu gehienez).

Proiektuak, oro har, izaera berritzaile nabarmena du, eta eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen du.	25 puntu
Proiektuak, oro har, izaera berritzaile nabarmena du, edo eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen du.	15 puntu
Proiektuak ez du izaera berritzaile eta ez du eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen.	10 puntu

b) Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertze beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (gehienez 25 puntu).

Eskaera aurkezteko nean eskabidea osorik egon da, eta enpresa proiektuaren zehaztasun eta definizio maila oso ona izan da.	25 puntu
Eskaera aurkezteko nean eskaera osorik zegoen, baina enpresa proiektuaren zehaztasun eta definizio maila ez da nahikoa izan.	20 puntu
Eskaera aurkezteko nean eskabidea ez zegoen osorik, baina geroago osatu da, eta enpresa proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia izan da.	15 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	5 puntu

c) Aurreko ekitaldietan emandako dirulaguntzen xedeak zenbateraino gauzatu eta bete diren (gehienez 15 puntu).

Gauzate eta betetze maila oso handia ehuneko 85 baino gehiago onartuta, esleitutakoaren aldean) edo alde zurretik dirulaguntzarik ez duena	15 puntu
Gauzate eta betetze maila handia (ehuneko 75 baino gehiago onartuta, esleitutakoaren aldean)	10 puntu
Gauzate eta betetze maila ertaina (ehuneko 60 baino gehiago onartuan esleitutakoaren aurrean)	5 puntu
Gauzate eta betetze maila txikia (ehuneko 60 baino gutxiago onartuta, esleitutakoaren aldean)	0 puntu

d) Goi denboralditik kanpoko ekitaldi bat egitea (goi denboraldia: uztaila, abuztua, Aste Santua eta zubiak) (15 puntu gehienez).

Ekaina eta iraila	5 puntu
Apirila-maiatza/urria-azaroa	10 puntu
Abendua-martxo	15 puntu

e) Proiektuaren kalitate teknikoa. Proiektu guztiaren justifikazioaren, haren helburuaren, metodologiaren, planifikatutako jardueren eta aurreikusitako jarraipenaren eta ebaluazioaren arteko lotura. Aurkeztutako proiektuaren koherentzia orokorra (gehienez, 10 puntu).

Proiektua, oro har, koherentea da bere jarduera guztietan	10 puntu
Proiektua, oro har, koherentea da bere jarduera gehienetan	5 puntu
Proiektua, oro har, ez da koherentea	0 puntu

f) Aurkeztutako jarduerak zer mailatan egokitzen zaizkien Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzaren turismoa sustatzeko jarduerari. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak proiektuari interes berezikoa iriztea (gehienez, 10 puntu).

Egokitzapena argia edota zuzena da, eta interes bereziko proiektu irizten zaio.	10 puntu
Egokitzapena argia edota zuzena da, baina ez zaio interes bereziko proiektu irizten.	5 puntu
Egokitzapena ez da argia, ez zuzena, eta ez zaio interes bereziko proiektu irizten.	0 puntu

10.2. Edonola ere, lerro honetako dirulaguntzen onuraduntzat eman ahal izateko, eskatzaileak deialdi honetako 3. artikuluan ezartzen diren betekizun guztiak bete beharko ditu eta, horrez gainera, aurkeztutako jarduketan multzoak gutxienez ere 50 puntu lortu beharko ditu balorazioan.

10.3. Onuradunak hautatzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

11. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epealdia

11.1 Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, dagozkion ebazpenak emango ditu. Ebazteko epea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da.

11.2. Ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

11.3 Jakinarazitako ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du, baina, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertzeko errekurtoa aurkez dakioke Foru Gobernu Kontseiluari, erabakia jakinarazi ondorengo egunean hasi eta hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, ebazpena jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

12. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa eta ordainketa

12.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

12.2. Dirulaguntzaren lehenengo zatia, hau da, onartutako dirulaguntzaren ehuneko 50, ebazpena onartutakoan ordainduko zaie, justifikatu beharreko aurrerakin gisa.

12.3 Dirulaguntzak bitarteko elektronikoen bidez justifikatu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoa.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute jatorrizkoekin, zeina interesdunaren esku egongo baita, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura egon beharko dute hala eskatzen zaionean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen erantzule.

12.4. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren gainerako ehuneko 50a ordaintzeko bete-beharra onartzeko, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2020ko abenduaren 18ko 14:00etarako (egun hori barne):

- Egindako jardueren memoria.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehe-tasunak, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.
- “Justifikazio fakturen zerrenda; honako hauek jaso behar ditu: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data, ordainduta badago.”
- Fakturak eta froga balio bereko gainerako agiriak.
- Hiru eskaintza eta, eskaintzarik merkeena aukeratu ez bada, horren arrazoiak azaltzen dituen justifikazio txostena (bakar-bakarrik partidaren batek eskaera egiteko garaian hiru eskaintza aurkeztera behartzen ez bazuen eta geroago benetako gastuak ezarritako 15.000,00 euroko mugara heldu edo hortik gorakoak izan badira).

Ez dira dirulaguntza ordaintzeko aurkeztutako justifikazio fakturatzat hartuko eskabideari erantsi zaizkionak. Kasu horretan, onuradunak berriro aurkeztu beharko ditu faktura horiek, aurrez zehaztutako gainerako dokumentazioarekin batera.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua.

Profesionalek emandako fakturen kasuan, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketa egin beharra onartuko da eta Arabako Foru Aldundiaren arduraz izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta bidezko justifikazio txostena egitea. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.5. Arabako Foru Aldundiak justifikatutako dirulaguntzaren gainerako portzentajea ordainduko du (ehuneko 50), eta lehen ordainketa justifikatutaz joko du, baldin eta onuradunak

2021eko apirilaren 2ko 14:00ak baino lehen (egun hori barne) aurkezten badu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan fakturen ordainketaren justifikazioa, honako formatu hauetako edozeinetan:

– Jatorrizko banku ziurtagiria, ondoko datu hauek zehazten dituen: ordaintzailea, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna, izenpetuta edota bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko ziurtagiria, faktura jaulki duenak sinatuta edo zigilua jarrita, datu hauek zehaztuta: fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

– Bankuko jatorrizko kontu laburpenak, posta arruntez jasoak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Diruz lagundutako jarduera zehazten duten erosketa edo zerbitzuen agiriak edo ordainagiriak, ordaindu beharreko kopurua ordaindu dela frogatzen dutenak.

– Kontabilitateko P agiriak, dirulaguntza jaso duen erakunde publikoaren zigilu eta guzti.

12.6. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2020rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

12.7. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epemugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira agiriak.

12.8. Justifikatutako gastuak, guztira, diruz lagundu daitekeen aurrekontua adinakoak izan beharko dira, gutxienez. Diruz lagundu daitekeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzian murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

12.9. Hasieran onartutako diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren mugarekin, dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptu eta zenbatekoetan aldaketak onartu ahalko dira, dirulaguntza jasoko zuen kontzepturen bat egin gabe geratu bada ere. Betiere desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute, salbu eta funtsezko aldaketak egiten direnean, halakoei Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak eman beharko baitie oniritzia.

12.10. Arestiko paragrafoetan dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko nahiz hura kobratzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa elektronikoki aurkeztuko da Erregistro Elektronikoan, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa ere kontuan hartuz.

12.11 Erantzukizunpeko aitortpen bat aurkeztu beharko da, jatorrizko frogagiriak gordailututa egoteari buruzkoa, eta adierazpenean jasota egon beharko dira aurkeztutako dokumentazioa zein emaniko laguntzaren frogagiriak (gastu eta ordainketa agiriak) bat datozela fidelki jatorrizko agiriekin, zeinak gordailututa egon beharko baitira pertsona fisiko edo juridikoaren legezko egoitzan. Adierazpen hori kasuan kasuko legezko arduradunak sinatu beharko du.

Ausazko eta/edo aukerako laginketa tekniken bidez egiaztatuko da ea egiazkoak diren memorian aurkeztutako fakturen kopietako eta ordainagiritako zenbait.

12.12. Zenbait kasutan lehenengo emanaldia egin ahalko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa. Hala ere, ez da ezarri emandako funtsak bermatzeko inolako araubiderik.

12.13. Baldin eta 6. artikuluan ezarritako dirulaguntza muga aplikatu bada, onargarria izango da diruz laguntzekoa den gastuan murrizketak egitea, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe, ordea; alabaina, beharrezkoa izango da betetzea dirulaguntzaren xedea, eta errespetatzea diruz lagundutako gastuaren gutxieneko zenbateko justifikatu beharrezkoa, alegia, operazio honen emaitza: esleitutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehuneko.

12.14. Lehen aipatutako epeak igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu ez bada, edo aurkeztu beharreko guztia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

13. artikulua. Diru laguntzen bateragarritasuna

13.1. Oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuak hamabigarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira erabaki honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

13.2 Deialdi honetan ezarritako laguntzek errespetatu egingo dituzte Europako Batzordearen unean uneko erregelamendu indardunetan ezarritako "de minimis" arauak.

14. artikulua. Interpretazioa eta garapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio erabaki hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onartzeko.

15. artikulua. Eskaerak egokitzea

Erabaki honetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartzerik ez duten hirugarren pertsonen jarduketak – dela erabaki honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, diruz laguntzea nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz, proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurten kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen zaizkielako eta horrelakoren bat eskuratu ahal dutelako– dagokien laguntza lerrora eraman ahalko dira ofizioz.

16. artikulua. Azken klausula

Erabaki honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentzien urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren araudia onesten baitu, eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak.